



PRENTSA OHARRA (EUSKARA)

Plazaola-Mendialdeak «Plazaola-Mendialdea Ezagutuz» programaren II. edizioa aurkeztu du, turismo erregeneratiboaren aldeko apustu sendoarekin

«Gurea zainduz, gurean gozatuz» lelopean, udako sei esperientzia interpretatibo eskainiko dira lurraldeko natura eta ondarea ezagutzeko eta zaintzeko.

Plazaolako Partzuergo Turistikoak **«Plazaola-Mendialdea Ezagutuz»** programaren bigarren edizioa aurkeztu du. Ekimen honek Plazaola-Mendialdeko natura, ondarea, historia eta paisaia modu jasangarrian ezagutzeko aukera eskainiko die bai bertako herritarrei bai bisitariei.

Programa **Nafarroa Ezagutu Sarearen** barruan kokatzen da, Nafar gobernuaren laguntza jaso du, eta esperientzia interpretatiboen bidez lurraldearekiko ezagutza, lotura eta zaintza sustatzea du helburu.

2025ean egindako lehen edizioaren harrera bikainaren ondoren, aurtengo hainbat berrikuntza txertatu dira. Jardunaldi bakoitzean jarduera bakarra egingo da, bi eta hiru ordu arteko iraupenarekin, parte-hartzaileei esperientzia lasaiago eta sakonagoa eskaintzeko.

Turismo erregeneratiboaren aldeko urratsa

Edizio honetako berrikuntza nagusia jasangarritasunaren ikuspegia indartzea izan da. Natura ezagutzeaz gain, natura zaintzen ikastea ere izango da helburua.

Horretarako, jarduera guztietan ingurunea errespetatzeko gomendioak landuko dira, eta parte-hartzaile guztiek hondakin bilketa sinboliko batean parte hartuko dute.

Programaren mezua argia da: **«Aztarna utzi behar bada, positiboa izan dadila».**

Horrela, bisitariak ez dira soilik ingurunea ezagutzera etorriko; ingurunea hobetzen laguntzera ere gonbidatuko dira.

Elkarlanaren emaitza

Programa Plazaolako Partzuergo Turistikoak antolatu du Lekunberriko, Larraungo, Araizko eta Beteluko udalekin batera, eta tokiko hainbat eragilek parte hartuko dute, besteak beste Mendukiloko Koben taldeak, AIZTI Ingurumen Zerbitzuek, ED+ enpresak eta ASTIROK.

Sei jarduera, lurraldea beste modu batean ezagutzeko

Uztailaren 25etik abuztuaren 29ra bitartean, programak sei esperientzia erregeneratibo eskainiko ditu, Plazaola-Mendialdeko hainbat gune esanguratsu ezagutu eta zaintzeko aukera emango dutenak:



- **Uztailak 25, 10:00etan – "Araitz: Harkaiztiak, noren etxe?"** Gaintzako Kablearen Behatokian (Araitz) harkaiztietako hegaztiak behatzeko jarduera. Lurreko teleskopio eta prismatikoen laguntzaz, harkaiztietako hegaztiak behatzeko tailer praktikoa egingo da.
- **Abuztuak 1, 10:00etan – "Uraren Zaindariak"** Astitzeko (Larraun) Mendukiloko Kobetan. Ohiko bisita-ibilbidetik kanpo irteteko aukera izango da, altxor natural honen garbiketan laguntzeko. Era berean, gizakiaren presentziak kobazuloko ekosisteman duen eragina ezagutuko da.
- **Abuztuak 8, 10:00etan – "Araxes: Ura, Industria eta Natura"** Betelun. Araxes ibaiaren inguruko natura- eta industria-ondarea ezagutzeko bisita interpretatiboa egingo da. Jarduera amaitzean, ibai-piscinan bainua hartzeko aukera egongo da.
- **Abuztuak 15, 10:00etan – "Larraun zaindu dezagun"** Larraun ibaian egingo den hondakin-bilketa erregeneratiboa. Ibilbidea oinez hasiko da Iribastik, eta Allitik aurrera kanoaz jarraituko da.
- **Abuztuak 22, 10:00etan – "Plazaola Sentituz"** Lekunberrin, Plazaolako Bide Berdean egingo den bisita interpretatibo eta sentesoriala, irisgarritasunari arreta berezia eskainiz. Irisgarritasun-premiarik izanez gero, jakinarazi mezu bat bidaliz helbide honetara: erreserbak.plazaolamendialdea@gmail.com.
- **Abuztuak 29, 10:30ean – Amaiera jardunaldia** Plazaolako geltokian (Lekunberri). Programaren amaiera ospatzeko topaketa egingo da, argazki-lehiaketarekin, sari-banaketarekin eta lunch batekin. Jarduera hau programako gainerako ekintzetan parte hartu duten guztiei zuzenduta dago. Jardunaldi honetarako ere aldeztu aurretik izena ematea gomendatzen da.

Jarduera guztietan parte hartzeko, aldeztu aurretik izena eman beharko da Nafarroa Ezagutu Sarearen [erreserba-plataformaren](#) bidez. Jarduera guztiak doakoak dira, Mendukiloko Kobetan egingo den "Uraren Zaindariak" esperientzia izan ezik. Halaber, "Araxes: Ura, Industria eta Natura" jardueran parte hartzeko [Beteluko aparkalekua](#) aldeztu aurretik erreserbatzea gomendatzen da.

Lurraldea ezagutu, zaindu eta etorkizunari transmititu

Bigarren edizio honen bidez, Plazaola-Mendialdeak turismo jasagarri eta erregeneratiboaren aldeko konpromisoa berresten du, bisitariei lurraldea modu arduratsuan bizitzeko aukera eskainiz.

Plazaola-Mendialdea ez baita bisitatzeko toki hutsa; bizi, ulertu eta etorkizuneko belaunaldientzat zaindu beharreko lurraldea da.

Horixe da programa osoa gidatuko duen mezua: **«Aztarna utzi behar bada, positiboa izan dadila».**

Informazio gehiago Lekunberriko turismo bulegoan 948 507204 eta www.plazaola.eus